

Maite Albero Mendiburu

GARAI BATEKO MARTUTENE. JOLAS PARKEA ETA ZEZEN PLAZA

SARRERA

IRALEko ikastaro hau egiten hasi nintzenean, ezin pentsatu lan hau burutuko nuenik.

Berariazko gaia aurkeztu zigutenean, esan ziguten proiektu bat aurrera eraman beharko genuela gero taldeari aurkezteko. Libre zen gaia. Bakoitzak nahi zuena aukera zezakeen.

Gaia berehala etorri zitzaidan: Martuteneko Kursala eta zezen plaza. Martutenekoa naiz eta maiz entzun izan dut familian Kursala eta garai bateko zezen plazako aipamenik. Gainera, banituen gordeta Martuteneko festetako bi programa, non honi buruzko informazioa agertzen zen. Interesgarria iruditu zitzaidan eta, irakasleak lana proposatu zigunean, aukera ezin hobea ikusi nuen herriko historian murgiltzeko eta gure herriko historian erreferente izan diren bi eraikin horiei buruz nekiena baino gehiago argitzeko.

Irakasleari nire asmoa agertu ondoren, aurrera egiteko esan zidan. Are gehiago, animatu egin ninduen, gaia interesgarria zelako. Ezin ukatu beldurrez hasi nintzela, batetik, informazio gutxi nuelako eta, bestetik, ez nekielako zerekin topatuko nintzen. Nondik hasiko naiz? Informazio iturririk topatuko al dut? Gai izango ote naiz lan hau burutzeko? Honelako galderez bete zitzaidan burua. Baina atea jotzen hasi nintzen: internet, kultura-etxeak, liburutegiak, Kutxako fototeka... eta materiala ateratzen hasi zen. Honek lasaitasuna eman eta bidea ireki zidan aurrera egiteko.

Lana ez da erraza izan. Hori ezin da ukatu. Lana egiteko denbora gutxi eta informazio gehiegi, eta maiz ezin asmatu nola ustiatu. Hala ere, gogotsu, hasitakoa amaitzea lortu dut. Eta ez da gutxi. Eskuartean duzuen da horren emaitza. Nolako lana den? Hori zuei, irakurleoi, dagokizue esatea eta ez niri.

Esan beharra daukat, bestalde, oso jende jatorra topatu dudala bidean. Jende atsegina eta laguntzeko beti prest. Harridura handiena internetek eman dit. Ez nuen uste, salbuespen bat izan ezik, hain erraz jasoko nuenik laguntza bide honetatik. Baina, behin eskatzen hasita, jendea beti zegoen prest laguntzeko eta esan nezake oso atsegina izan dela. Gainera, horietako batzuk pertsonalki ezagutzeko aukera izan dut gero.

Hasierako urratsetan lan hau ikerketa moduan planteatuko beharko nuela esan zidan norbaitek, eta azkenean, horrela bilakatu da, ikerketa lana. Lanak lan, oso gustura aritu naizela aitortu behar dut eta, harrapatu ere egin nauela esatera ausartuko nintzateke. Lan honekin jarraitzeko gogo ez zait falta baina geroak esango du.

1- MARTUTENeko JOLAS PARKEA

1.1- Garaia

Tranbia Donostiara iritsi zenean, hiria eta inguruko herriak hurbildu egin ziren. XX. mende hasieran ohikoa zen Donostiatik irten eta ondoko herrietara joatea jai egu-



Tranbia zubi gainetik pasatzen. Jose M^a Sanchez (Tokiko Bilduma. Casares Kultur Etxea)

netan. Ondoko herriak Loiola, Martutene, Hernani edo Errenteria ziren. Tranbiarekin Donostiatik herri hauetara joateko bidaia askoz azkarragoa zen, eta horrek izugarri erraztu zien Donostiarrei igande arratsaldea herri hauetan pasatzea.

Familia osoak joaten ziren: gurasoak, umeak eta aiton-amonak, merienda eta gutti. Egunaren bukaeran tranbian itzultzen ziren familiak: umeak zikinak, amona nahiko nekatua, gurasoak pozik eta, jakina, meriendaren soberakinak saskietan ongi bildurik.

Egun badago Martutenen Tranbia izeneko kale bat garai baten tranbia bertatik igarotzen zelako oroigarri. Kale horren zati batean, adreilu gorritz eta grisez, trenbidea izan zenaren itxura eman diote zoruaren zati bati. Trinquete tabernatik hasi, futbol zelaiaren ondotik pasa, eta ia gasolindegiraino iristen da zati hori. Azken etxeak eta parke berria eraiki zituztenean egin zuten, 1999an.

Martuteneko Kursaal, zenbait urtez ospetsu eta alai izan zen Donostia hartako herririk bisitatuenetakoa bihurtu zen. Hiriburutik bertara, tranbia eta gabarra zerbitzu bereziak zeuden. Gabarrak Urumea ibaian barrena joaten ziren gaur egun Martuteneko "Estanco" tabernan zegoen moilako ontzirelekura.

Txangoak egiteko moda horretaz profitatu nahi izan zuen frantses enpresari batek. Elkarre bat osatu zuen Loiola bailarako terrenoak esplotatzeko. Villak eta hotelak eraikitzeko lurra saldu zituen zatika. Horrez aparte, jolas parke bat ere eraiki zuen bisitarien gozamenerako.



Martuteneko bista orokorra. Jose M^a Sanchez (Tokiko Bilduma. Casares Kultur Etxea)

XX. mende hasieran, Donostiako familiak ospetsuek udarak Martutenen pasatzen zituztenez, berehala egin ziren villa horien jabe. Zenbait familia Madrilen bizi



**Martuteneko zenbait villa eta Kursala.
Jose M^a Sanchez (Tokiko bilduma. Casares kultur etxea)**



**Martuteneko zenbait villa eta Kursala
Jose M^a Sanchez (Tokiko Bilduma. Casares Kultur Etxea)**

eta bertara etortzen zen udan. Horien artean Vara del Rey familia dugu. Haiena zen Manila izeneko villa. Frantses familiak ere izan ziren Martutenen garai hartan, eta zenbait villen jabe ziren. Villa Erro, adibidez, Carrier familiarena zen. Ondorengo beste hiru villa hauek frantses familia berberarenak izan ziren : Armenonville- egun zutik dirauena-, Azeline eta Ibaialde. Madu izeneko villa ere frantses familia bate-na zen.

Martuteneko ingurune hau aisialdi eta bizitegi izateko planifikazioa egin zuten Donostian. Altzan, berriz, industria gune bihurtzeko asmoa zuten. Proiektuak au-



**Kursaalerako sarrera, egungo tren geltokiaren parean
Jose M^a Sanchez (Tokiko Bilduma. Casares Kultur Etxea)**

rerra egin ahal izateko Donostiako eta Altzako adostasuna behar zen, bi udaltxeren lurrak behar zirelako, baina ez zen adostasunik lortu. Martuteneko zubia zen bi herrien arteko muga: Donostia eta Altxa. Garai hartan, zubitik Astigarraga aldera Altxa zen eta zubitik Donostia aldera, Donostia. Halere, Martutene aisialdirako gune bilakatu zen. Donostiar gazte talde batek inauguratu zuen Kursaal. Talde honetan Justo Oyarzabal zegoen, Uzcuduneko promotorea zena.



**Kursaalerako sarrera, gaur egun, tren geltokiaren parean.
Maite Albero (2005- 02- 27)**



**Kursaala
Jose M^a Sanchez (Tokiko Bilduma. Casares Kultur Etxea)**



Kursaala
Jose M^a Sanchez (Tokiko Bilduma. Casares Kultur Etxea)

Kursaal parkea 1910ko abuztuaren 13an inauguratu zuten, arratsaldeko 5etan, Donostian Aste Nagusia zelarik. M^a Cristina hotela eta Igueldo inauguratu gabe zeuden artean. Bertaratutakoen artean pertsona hauek zeuden:

- Garcia Prieto jauna, “Ministro de jornada”.
- Tabuyo jauna, alkatea.
- Aldecoa jauna, Epaitegi Goreneko lehendakaria.
- Baron de la Torre jauna, gobernadore zibila.
- Aristokrazia jendea.

Mila lagun inguru bildu ziren ekitaldira eta *lunch* garaian kontzertua izan zen. 1910eko abuztuaren 14ko alean, “El Correo de Guipúzcoa” egunkariak zionez, xanpaina ugari izan zen eta zerbitzariak lana gogoz egin behar izan zuten. “En el restaurante se sirvió á los invitados un exquisito *lunch*, en el que abundó el champagne, atendiendo admirablemente todos los camareros del mismo, que se multiplicaron en el servicio no obstante la enorme concurrencia que había y tener que atender á los que en la terraza se hicieron servir el té”.



Kursaal eraikinaren barrualdea. KUTXA FOTOTEKA

Eraikinaren argazkiak ikusi berri ditugu baina orain arte eraikinaren barrualdeko argazki bakarra topatu dut, ondorengo hau. Halere, ezin dut ziurtatu Kursaal garaikoa edo Campos Eliseos garaikoa den.

Errusiar mendi eta guzti zuen parkeak...



Kursaal parkea eta errusiar mendia. Jose M^a Sanchez (Tokiko Bilduma. Casares Kultur Etxea)



Kursaal parkea eta errusiar mendia
Jose M^a Sanchez (Tokiko Bilduma. Casares Kultur Etxea)

... baina haitzuloa, leizea zen interes handiena pizten zuena.

Sarreran, haitzuloa bisitatzera animatzen zuen kartel deigarria zegoen. Kartelean, izenaz gain, garbi ageri zen sarreraren prezioa: 0'50 zentimo. Oso handia zen haitzuloa; haren barruan ibiltzeko 300m-tik gorako bidea zegoen prestaturik. Bisitaldia gidatua zen, eta oso interesgarria. Hala ere, biziraupen laburra izan zuen, zeren ireki eta handik gutxira itxi behar izan baitzuten.

Martuteneko proiektuaren galerak oso handiak izan ziren eta Celestino de Batioil konpontzen saiatu zen. Hiru edo lau pertsona kontratatu zituen bisitari bezala, haitzuluan sar zitezten. Zurbil, harrituta eta txundituta irten ziren gizonak, eta esan zuten Ama Birjina agertu zitzaiela. Berri hau zabaldu zenean jendea bertaratzen hasi zen eta erromeriak antolatu ziren. Halere, fedea bultzaturiko bisita hauek berehala moztu ziren eta iruzurra egin zuten lau pertsonak ziegan bukatu zuten. Celestino de Batioil ere denuntziatu eta atxilotu egin zuten. Horrek guztiak, jakina, ez zion bate-re mesederik egin Martutenen jolas parke bat egiteko proiektuari.

Hasieran iragar-
tzen zitzaion arrakas-
ta ez zen hala suerta-
tu azkenean. "Conpo-
cas tardes como las de
ayer se hace rica en
breve la empresa de
Martutene, que justo es
decir que no ha omi-
tido medio para hacer
agradable la estancia,
mejorando todos los
servicios y creando
una serie de distrac-
ciones que aumentan
los atractivos que de
por sí ha concedido la
naturaleza á tan en-
cantador lugar". Ho-
rrela irakur dezakegu
"El Correo de Gui-
púzcoa" egunkarian
1910eko abuztuaren
14ko alean –igandeko
alean–, inaugurazioa-
ren hurrengo egunean.
Ikusten denez, itxaro-
pen handia piztu zuen
proiektuak; hala ere,
1923an bai jolas parkea
–baita zezen plaza ere–
itxi egin zituzten, arra-
zoi ekonomikoengatik.



Leizearen barrualdean
Jose M^a Sanchez (Tokiko Bilduma. Casares Kultur Etxea)

1.2-. Deskribapena

Kursaal parkeak ospe laburra ezagutu zuen. American Park zuen izena, baina Kursaal izenarekin zen ezaguna. Kursaal hitza alemaneratik dator eta bainuetxea esan nahi du. Baina bere esanahiak zentzu zabalagoa hartu eta aisialdi edo jolas lekua adierazteko erabili izan da.



Kursaal parkea eta errusiar mendia
Jose M^a Sanchez (Tokiko Bilduma. Casares Kultur Etxea)

Parkea nolakoa zen ikusteko oso adierazgarri da honako iragarki hau, “Zezenak dira” liburuan agertzen dena:

“Allí se emplazó el <<KATING KURSAAL MARTUTENE SKATING. Entrada 50 céntimos con Cinema *Pathé Freres*. Todos los días hasta las doce de la noche. Inmenso parque de atracciones. Pintoresco *Railway Water chute* con *troittor roulant*. Recreo para los niños. Todos los viernes baile de niños con tómbola. *Tramway* todos los diez minutos >>...”.

Edo, tarteka, garaiko egunkarietan agertzen zen beste hau:

KURSAAL MARTUTENE

A diez minutos de la ciudad

TRANVIA CADA CINCO MINUTOS

Todos los días atracciones sensacionales.

Ferrocarril. Pintoresco *water-chute*,

etcétera, etc. Grandes fiestas de noche.

Iluminaciones, fuegos artificiales. Orquesta,

Teatro, cinematógrafo, bailes de niños con tómbola.

AFTERNOON TEA - RESTAURANT

Entrada 0,50 céntimos.

Beraz; Kursaalean bazeuden antzokia, jangela eta jolas ttipietarako aretoa. Baita harri bitxia zen terraza ere; haren azpian, jolas parkea zegoen. Bertan zeuden kolunpioak, tiroa, errusiar mendia, *water chute*-a, etabar. Eta gauean su artifizialak izaten ziren parkean, baita zezensuzkoa ere. Garaiko egunkari batean irakurritakoagatik, badakigu sarrerak pezeta bat ere balio izan zuela- nahiz eta goiko iragarkian 0'50 zentimo balio zituela aipatu-, eta horrek atrakzio batetarako aukera ematen zuela, atrakzioa edozein zela ere.

Atrakzio horietako bat, lehen aipatu bezala, *water chute*-a zen. Aldapan zegoen trenbide bat zen. Bertatik tren bat jaitsi eta uretan bukatzen zuen.



Water chute-a
Jose M^a Sanchez (Tokiko Bilduma. Casares Kultur Etxea)



Water chute-a
Jose M^a Sanchez
(Tokiko Bilduma.
Casares Kultur Etxea)



Water chute-a
Jose M^a Sanchez (Tokiko Bilduma. Casares Kultur Etxea)



Water chute-a. Jose M^a Sanchez (Tokiko Bilduma. Casares Kultur Etxea)

Badakigu hau berritua izan zela eta, berritua izan ondoren, lehenengo aldiz gauez egon zela martxan. Jaitsiera, argien artean, zirrargarria izango zela iragartzen da garaiko egunkari bateko kronika batean: “... y será verdaderamente emocionante el descenso en medio de la profusa iluminación que hará cosa fantástica de aquel lugar”.



Kursaal parkea eta jatetxea. Jose M^a Sanchez (Tokiko Bilduma. Casares Kultur Etxea)

Jatetxe bat ere bazegoen parkean, “Restaurante de las grutas de Martutene” izenekoa.



**“Restaurante de las Grutas de Martutene” jatetxea
Jose M^a Sanchez (Tokiko Bilduma. Casares Kultur Etxea)**

Bazeuden gamelu bat eta asto batzuk umeak -eta ez hain umeak, argazkian ikusten denez-, parkean zehar ibiltzeko.



Gamelua eta astoak. Jose M^a Sanchez (Tokiko Bilduma. Casares Kultur Etxea)

Baita goxoki postuak eta laku txiki bat ere, umeen gozamenerako.



Jolas parkeko postu bat. KUTXA FOTOTEKA

Horretaz gain, bazen kasino bat ere, erruleta eta “bacarrá” zituena.

1.3-. Ekitaldiak

Aurreko atalean, jolas parkearen deskribapenean, parkea nolakoa zen ikusteko agertu diren iragarkietan, zenbait ekitaldiren aipamenak agertzen dira jadanik. Dena dela, ekitaldi horiei jarriko diegu orain arreta. Hauen berri ematen hasi baino lehen, esan beharra dago garai hartako egunkarietan aurkitutako informazioari esker dugula gaur ekitaldi hauen berri. Beraz, atal honetan agertzen den informazio guztia, egunkari horietan aurkitutakoa da.

* Su artifizialak eta zezensuzkoa

Gauetz su artifizialak izaten ziren. Baita zezensuzkoa ere, urteetan erre ezin izan zena. “Esta noche, fiesta de fuegos artificiales seguida del clásico toro de fuego que hace tantos años no se ha podido quemar en esta ciudad”.

* Akrobatak eta ilusionistak.

Igande batez, Donostian zezenketa izan arren, 2.000 sarreratik gora saldu ziren. Aste horretarako programa oso erakargarria zen. Bestek beste “Les Sempe” eta

“Malet” akrobata bikainak eta M.J. Robert ilusionista ospetsua aritu ziren bertan. “El programa organizado para la semana actual es muy sugestivo, en cuanto a la parte artística, figurando, entre otros, los notables acróbatas y excéntricos Les Sempe y Malet y el célebre ilusionista M.J.Robert”.

* Antzerki saioak eta zinematografoa.

Irailaren 4tik aurrera, igandeetan, (urtearen arrastorik ezin izan dut jaso), antzerki saioak izan ziren “en matinéé”. “A partir de hoy domingo, 4 de septiembre, las sesiones de teatrales tendrán lugar en “matinée”, siendo la primera ...”. Lehenengoa arratsaldeko 5etatik 6etara, eta bigarrena 6:30etik 7:30era . Gauean, 10:30ean zinematografo saioa izaten zen.

* Boxeo

Irailaren 6an, asteartea, lehenengo boxeo saioak izan ziren. Saio hauek arratsalde egiten ziren. Antolatzaileen iritziz arrakastatsuak izan ziren eta ikusleak oso gustura irten ziren borroka ikuskizunetatik. Horrela dio, behintzat, garai hartako egunkari bateko kronikak. “La primera sesión de boxeo celebrada ayer tarde, constituyó un señalado éxito para los organizadores del torneo, y el numeroso y selecto público que asistió al espectáculo, salió entusiasmado de la lucha que sostuvieron los boxeadores”.

Lehenengo egun hartan, “Pesos ligeros” txapelketa Jim Senner-ek , Touloussen irakasle zenak, irabazi zuen, baina ez zailtasunik gabe. Bere aurkaria Jourdain zientzialaria izan zen.

Bigarren saio batean, egun berean, Tom Lane ingelesak konbatetik kanpo utzi zuen James Watts amerikarrak borroka latz baten ondoren. Egun hartako emanaldia hirugarren konbate batekin bukatu zen. Bi txapeldun aritu ziren elkarren kontra: O’Mara kanadarra eta Frantziako mendebaleko O’Brien, baina hurrengo egunean bukatu behar izan zuten konbatea baliogabetua suertatu zelako.

Eta hurrengo egunean, arratsaldeko bostetan, honako konbate hauek izan ziren:

- “Pesos ligeros” txapelketa: · Sallard frantziarra , 63 kilo eta 500 gramokoa.
· Jim Watts amerikarra, 63 kilo eta ... gramokoa
- “Pesos ligeros” txapelketa: · Beurdin frantziarra, 62 kilokoa
· Jim Semmer frantziarra, 59 kilokoa
- “Pesos mayores” txapelketa: · O’Mara kanadar txapelduna, 78 kilokoa
· O’Brien, Frantziako mendebaleko txapelduna, 84 kilokoa

* Umeen dantzaldia

Umeen lehen dantzaldia ostiral batean egin zen. Bertaratu ziren haur guztiei jostailuak banatu zitzaizkien. Dantzaldiaren orkestra Parnau maisuak zuzendu zuen pierrotez jantzita. Gerora, ostiralero egiten ziren umeentzako dantzaldi hauek. Lehen dantzaldiaren biharamunean, jendetsua izan zela irakur daiteke garaiko kronika batean; umeak zoratuta omen zeuden enpresak emandako jostailuak jaso zituztenean. “Concurridísimo estaba ayer el baile de niños. Era una visión encantadora el cuadro animadísimo. La gente menuda entusiasmada al recibir los numerosos y hermosos juguetes regalados por la empresa”.

*Dantzaldiak

Ospetsuak izan ziren “Campos Eliseos”-etan egiten ziren dantzaldiak. Hasiera batean nik uste nuen Kursaal, parke osoaren izena zela, eta Campos Eliseos, ordea, parke barruan dantza egiten zen zonaldea. Baina argazkiek eta ahozko testigantza batek eraman naute pentsatzera bi garai ezberdin izan zirela. Lehenengoa, Kursaalaren garaia, eta gero, Campos Eliseosena. Azken hau ospetsua izan da orain dela gutxi arte. Jende askok oraindik biziki du gogoan, garai hura bizi edota aipamena entzun izan duelako.



Campos Eliseos. KUTXA FOTOTEKAK utzitako argazkia



Dantzaldia (Kursaal garaikoa)
Jose M^a Sanchez (Tokiko Bilduma. Casares Kultur Etxea)



Dantzaldia (Campos Eliseos garaikoa)
KUTXA FOTOTEKA



Dantzaldia (Campos Eliseos garaikoa)
KUTXA FOTOTEKA

1.4-. Ahozko testigantza: Carmen Loinaz eta bere alaba Mari Luz Arrietak kontatua

Campos Eliseos bezala ezagutzen zen dantzalekua Kursaal garaikoaren ondoren izan zela diote Carmen Loinazek eta bere alaba Mari Luz Arrietak. Ama-alabak ongi ezagutu zuten garai hura. Carmen orduan neskato gazte bat zen. Berak dioenez, haren aita joaten zen behi batekin hara, Campos Eliseos-etan dantzaldia zegoenean. Behia bertan jezten zuen esnea saltzeko. Esnea –jetzi berria–, kopatan zerbitzatzen zuten gero. Carmenek gogoan du tenis pista bat ere bazegoela han, beharbada Kursaal garaikoa.

Campos Eliseos-etan dantzaleku bi omen zeuden. Bata eraikinaren barruan eta bestea kanpoan. Batera zein bestera sartzeko ordaindu beharra zegoen, baina barrukoa garestiagoa zen. Eta gainera, azken honetara adin jakin batetik aurrea bakarrik zegoen sartzea. Hortaz, bertarako sarrera ordaintzerik ez zutenek eta adin txikikoek kanpoan egin behar zuten dantza. Kanpoko dantzaleku hori, Carmen-ek patinaje pista moduan ezagutu du. Gero Igeldon ezagutu du antzekoa zeren Kursaallean zeuden atrakzioak Igeldora eraman zituztela entzuna baitzuen berak.

Kursaalaren eraikin horretan Agustindar fraideek egon ziren gero eta han apaizgai ei ematen zieten eskola. Horregatik, gaur egun ere, eraikin hori “Los Agustinos” bezala ezagutzen dugu Martutenen.



**"Los Agustinos". Interneten lortutako argazkia
www.euskomedia.org/euskomedia_es/servlet/euskomedia.imagen**



**"Los Agustinos"
Maite Albero (2005- 02- 12)**

Garai hori nik neuk ere ezagutu dut. Arantzazuko Ama ikastolak ere urte batzuk egin zituen bertako gela batzuetan, eraikin propiorik ez baitzuen orduan. Geroxeago, Lanbide Heziketako ikastetxe bihurtu zuten. BHI institutua ere izan da orain dela gutxi arte. Egun, Zentax lasterketak egiten dira eraikuntzaren patioan, dantzalekua izan zen horretan, hain zuzen. Egunotan –beheko argazkian ikus daitekeenez– Urumeako autobidea izango dena eraikitzen ari dira eta Agustinoen eraikinaren ondo ondotik pasako da.



“Los Agustinos”: Patinaje pista eta dantzalekua izan, eta egun Zentax lasterketak egiten diren patioa; eta Urumeako autobiderako obra lanak
Maite Albero (2005- 02- 12)

Eraikuntza honen alboan arkupe batzuk ikusten dira. Duke eta markes batzuen etxea zen, “Arkaitz artekoa” du izena. Madrildik etortzen ziren uda pasatzera. Gero Zarauzko etxe-eraikitzaile bati saldu zioten. Oraindik orain tarteka etortzen dira ja-beak. Urumeako autobidea dela-eta, zati bat kenduko diote “villa” honi.



**Arkaitz artekoa, arkupeak
Maite Albero (2005- 02- 12)**



**Arkaitz artekoa, arkupeak
Maite Albero (2005- 02- 12)**

2-. MARTUTENEKO ZEZEN PLAZA



Martuteneko bista: zezen plaza ezkerrean
Jose M^a Sanchez (Tokiko Bilduma. Casares Kultur Etxea)



Martuteneko zezen plaza
Jose M^a Sanchez (Tokiko Bilduma. Casares Kultur Etxea)


2.1-. Garaia

1908. urtean Maura kontserbadorea zegoen gobernuan, Alfontso XIII.a errege zela. Espainiak, erbesteko koloniak galdu ondoren, egundoko krisia –98ko krisi eza-guna –jasan zuen. Martutenek, ordea, sona handiko garaia bizi izan zuen mende hasieran, herria Donostiarekin lotzen zuen tranbiari eskerrak.

Martuteneko zezen plaza Txofrekoa baina bost urte beranduago eraiki zen, baina hura baino askoz ere lehenago desagertu. Donostian 1908an Arana plaza bota zuten eta Txofreko plaza egin, handia eta elegante. Gogoan izan behar dugu Donostiak orduan garai gozoa bizi zuela. Hura izan zen hainbat alditan goraiaturiko “Belle époque” delakoa. Udak Donostian hiru ardatz zituen: Hondartza, Kasino Handia eta Zezen Plaza. Errege familia ere Donostiara etorrita, Donostia Espainiako hiriburu bilakatzen zen udan eta, hori dela eta, ez da harritzekoa inbertsio eta ekipamendu berriarako proiektuak sortu izana. Dirudienez, frantses arkitekto bati bururatu zitzaion Martutenen bizitegi-hiri bat egitea, tranbiak herri hau hiriburuarekin lotzen baitzuen. Proiektuan zenbait “villa” edo txalet eraiki nahi zituzten kasino eta jolas parke baten inguruan.

Horacio Azqueta jaunak zuzendutako donostiar talde batek eta Vicente Mendi-zábal y Cía enpresa eraikitzaileak Jostalekua elkartea osatu zuten. Elkarrekin bi bizitegi berria izango zena osatu nahi izan zuen “Plaza de festejos públicos” batekin. Izen honekin, eta Augusto de Aguirre arkitektoaren proiektuarekin, 90 urte aurreratu zitzaizkion gaur egun “Recinto o Centro de Actividades Multiuso” bezala ezagutzen dugunari. Azken finean 1908ko ekintzaile horiek izandako filosofia berean oinarritu dira orain “Complejo de Ocio de Illumbe” eraikitzeko, hau da, XXI. mendeko zezen plaza izango dena –zezenketak egiteko nahiz zernahiko jaialdiak antolatzeko gunea... Augusto de Aguirre arkitektoak urte osoan mota guztietako ikuskitzuna antolatzeko aukera emango zuen zezen plaza estali bat diseinatu zuen, Espainiako lehena.

Dokumentaziorik ez dago eskaera, lizentzia eta emankizunei dagokionez, arkitektoaren beraren artxibo partikularreko proiektua izan ezik. Dauden plano eta argazkiei esker zehatz-mehatz jakin dezakegu nolakoa zen plaza aurrerakoi hura. Zezenak dira liburuan agertzen dira proiektuaren 2 marrazki hauek, 44. eta 45. orrialdetan. Ikusten denez, 1907ko maiatzaren 11koak dira.



Proiektua Francisco Tuduri Esnal
"Zezenak dira (De Erreguesoro a Illumbe parando en el Chofre)".
Kutxa Fundazioa, 2000 (40-47)



Proiektua 2. Francisco Tuduri Esnal
"Zezenak dira (De Erreguesoro a Illumbe parando en el Chofre)".
Kutxa Fundazioa, 2000 (40-47)

Donostiarren talde batek zezen plaza estalia eraikitzeari ekin zion. Zezen plaza 1908ko maiatzaren 13an inauguratua izan zen Berlingo Orkestra Filarmonikoak eskainitako kontzertu batez. Auzoa oso animatua egon zen arratsalde hartan, banderak zintzilikatu zituzten etxe askotan. Halere, plazaren gestioa eraman zuen taldeak ahalegin handiak egin zituen arren, ez zen jende gehiegirik hurbildu. Donostiako "jet" jendea ez zen agertu emanaldira. Porrotak ez zituen antolatzaileak atzera bota eta hilaren 17an bigarren kontzertua eskaini zuten Donostiako Orfeoiarekin. Animazio berbera egon zen auzoan baina ez plazan. Horregatik, soil-soilik zezenketa-rako erabiltzea erabaki zuten. Zezen handiak ez ziren inoiz ekarri plaza honetara, baina ekainaren 7an inauguratu zuten nobillada batekin. Barajas, Cocherito Chico eta Torquito aritu ziren bertan. Lehenengo zezenkoa Basilio Barajasek toreatu zuen eta Cocheritok hil. Torquito ari zen bitartean izugarrizko iskanbila gertatu zen: espontaneo batzuk hareara atera ziren eta, poliziarik ez zegoenez, toreroak berauek izan ziren ordena jartzen ahalegindu zirenak. Borroka handia gertatu zen bi taldeen artean. Gertaera horrek guztiz markatu zuen zezen plazaren bizitza laburra.

Ikusirik igandero iskanbilaren bat gertatzen zela, Jostalekua elkarteak zezenketa-komiko bat antolatu zuten. Zezen plaza ez zen bete oraingoan ere, baina ikusleek oso ongi pasa omen zuten.

Arratsalde hartan Kixote Mantxakoa eta Sancho Panza berauek izan ziren Martutenen, baina ezer gutxi egin ahal izan zuten zezenko suhar baten erasoak saihesteko.

Zezen plaza honek izan zituen bolada txarrak. Desanimatuta bazeuden ere, enpresariak ikusleengana iristeko emanaldiak antolatzen jarraitu zuten, nahiz eta arrakastarik ez izan. Frantses eta espainiar zaldi-konpainia bat eraman zuten, greko-erromatar borroka bat ere antolatu zuten, eta ez batak eta ez besteak ez zuten plaza betetzea lortu, eta berriro ere iskanbilak nagusitu ziren.



Greko-erromatar borroka. Francisco Tuduri Esnal
"Zezenak dira (De Erreguesoro a Illumbe parando en el Chofre)"
Kutxa Fundazioa, 2000 (40-47)

Una composición de Julio González de la plaza de Martutene

Iskanbilarik sonatuena 1910ko martxoaren 13an gertatu zen; hain izan zen gogorra, ezen plazako kristal guztiak hautsi baitzituzten. Beste ekitaldi batean gatazka izugarria gertatu zen. Gobernu Zibileraino joan ziren manifestazioan sarreren dirua itzultzeko eskatzera.

Arazoak arazo, mota guztietako ekitaldiak antolatzen segitu zuten. Hala, hurrengo urteko apirilean dantzaldi bat iragarrita ikusten dugu, gaita-jole banda batek giro-tutako dantzaldia, alegia. Sarrera orokorrak 0,25 zentimo balio zuen, eta emakumeak dohain zuten sarrera.

Maiatzean eta ekainean pikadorerik gabeko bi nobillada egin ziren. Cándido Díaz-en Nafarroako ganadua zen. Tendiduak 1,50 balio zuen eta sarrera orokorrak 0,75 zentimo. Animazio lanetan “La Unión” musika banda aritu zen. Nobillada horiek ez ziren arrakastatsu izan eta, plaza, Francisco Tuduri Esnalek bere “Zezenak dira” liburuan 47. orrialdean dionez, hiru urtez-edo egon zen itxia.

1915ean enpresari berri batek abentura bati ekin zion. Nobillada abonua bat antolatu zuen Martutuneko plaza bultzatze aldera. Ekitaldiak ekainaren 3an, 6an, 27an eta uztailearen 18an eta 25ean izan ziren; emaitza ekonomikoak ez ziren espero bezala izan. Nobilladak, gutxienez, eskandalu eta istilurik gabe egin ziren. Dirudienez, harearen txikitasuna izan zen, neurri handi batean, arauzko zezenketak antolatzeko eragozpena.

1923an, ikusita aurrera egiterik ez zegoela, plaza ixtea erabaki zuten. Garbi dago ikuskizun eskasek, behi meheek, toreatzaile kaxkarrek eta ikusleen haserrealdiek ez ziotela batere mesederik egin plazaren bideragarritasunari eta gertatu beharrekoa gertatu zen. Beraz, Berlingo Orkestra Filarmonikoak eskainitako kontzertutik –1908an– itxi arte, 15 urte eman zituen bizirik, tente eta ikusgarri, zeren itxi zuten urtean bertan bota baitzuten. Jabeek bertan inbertitutako dirutza berreskuratzeko aukera ikusi zuten eta haren lekuan etxeak egin zituzten.

Etxeak eraikitzeko plazan erabilitako materiala aprobetxatu zen. Horren froga etxe horietako jabe batek esandakoa dugu; berak dio etxeko ate bateko ate-zangoa kentzerakoan, igeltseroek zezen plazako harmailatako baten inskripzioa aurkitu zutela, bere zenbakia eta guzti.

Gaur egun, 2005an, inauguraziotik ia 97 urte pasa dira, eta oraindik plaza hartatik zerbait geratzen da. Zezen plaza zegoen inguruan eraikitako etxe horiek, edo batzuk behintzat (ez dakit lehen gehiago egongo ote ziren), ikus daitezke gaur egun auzoan, “el callejón” izenez ezagutzen dugun kalezuloan, Trinquete tabernaren parean; horretarako errepidea gurutzatu besterik ez dago. Kailejoi hau “el callejón del cura” izenez ere ezaguna da, lehengo parroko bat –“Don Ramón”– bertako etxe batean bizi zelako, errepide nagusiaren ondoko lehen etxean, hain zuten.



Zezen plazako materiala erabiliz eraikitako etxea. Argazkiaren eskuinaldean, "Don Ramón" bizi zeneko etxea. Maite Albero (2005- 02- 12)



**Zezen plazako materiala erabiliz eraikitako etxea
Maite Albero (2005- 02- 27)**



**Zezen plazako materiala erabiliz eraikitako etxea
Maite Albero (2005- 02- 27)**

Zezen plazak bere emanaldiengatik baino iskanbilengatik izan zuen sona eta oihartzuna. Horregatik esan da umorez: "Aunque por el techo acristalado entraba el sol, esta plaza tuvo muy mala sombra".

Laburra izan zen oparotasun garaia, baina, zoritzarrez, gehiago ez dugu ezagutu halako bizitzarik Martutenen. Gogoan izan behar dugu hemen izan zirela dantzaldiak, su artifizialak, ekitaldi bitxi eta sarriak, zezenketak, ume festak, zinema emanaldiak, patinaje lehiaketak eta baita ongintzazko galak ere; horietan, errege familiaren beraren parte-hartzea izan zen tarteka.

2.2-. Deskribapena

Plaza honek bitxikeria bat du: estatuan ezagutzen den lehen plaza estalia izan zen. 80 metroko diametroa zuen. Haren sabaia, beirazkoa, berrikuntza izan zen garai hartako eraikuntzan.



**Kanpoko ikuspegia. Francisco Tuduri Esnal
“Zezenak dira (De Erreguesoro a Illumbe parando en el Chofre)”
Kutxa Fundazioa, 2000 (40-47)**

Harrigarria da promotoreek “zezen plaza” izendapena erabili nahi ez izana, beste zerbait ere bazela adierazitako nahian. Proiektuaren izena hau zen: “Plaza de Festejos Públicos”, eta lehenengo ekitaldien karteletan “Plaza Cubierta de Martutene” izenarekin azaltzen da.


Augusto de Agirrek egin zuen proiektuak ohiko zezen plazaren itxura zuen. Bi solairu zituen eta bi isurkiko teilatuak estaltzen zituen. Piramide lauki formako estruktura metalikoa zuen, zezen plaza estaltzen zuen beirateriari eusteko. Estruktura hau harmailen lehenengo ilaran zeuden euskarri metaliko batzuetan sostengatzen zen. Ikusleen estalkia sostengatzen zuten burdinazko zutabeek ere bertan zuten oinarria. Eguraldi ona egiten zuenean goiko beirateria ireki zitekeen airea sar zedin. Beirazko estruktura honen instalazioak, hareako diametroa ahalik eta txikiena egitea ekarri zuen. Hori gero oztopo bilakatuko zen zenbait ekitalditan, zezenketetan batez ere, ezen toreatzaileek eta ez baitzuten espazio nahikorik dotore eta egoki mugitzeko. Hori izan zen, ene ustez, lehen esan bezala, zezen plaza honen porrotaren arrazoi nagusienetarikoa.

Harea gunek 32 metroko diametroa zuen; ohikoa denez, toreatzeko erdiko zirkuluaz gain, plazak bazituen barrera eta 2 metroko kailejoia ere. Plazaren laurden batean, tendiduak 5 ilara harmaila zituen eta 16 palko–presidentziaren palkoaz gain–. Plazaren beste hiru laurdenean, berriz, 2 ilara gehiago zituen tendiduak eta, horretaz aparte, paseo zirkularra, zutikako ikusleentzat –han, gerora, palkoak edo har-

mailak egiteko asmoa zeukaten-. Guztira, 2500 ikusleentzako edukiera zuen, jendea eserita izanez gero. Baina, jakina, aipaturiko paseo zirkularra zutikako ikusleentzat erabilia, askoz handiagoa zen haren edukiera.

2.3-. Ekitaldiak

Gogoangarria izan zen inaugurazio ekitaldia. Inaugurazioa 1908ko maiatzaren 13an izan zen. Berlingo orkestra Filarmonikoak kontzertu batez eman zion hasiera. Richard Straussek berak zuzendu zuen orkestra.



Sarrereren prezioa 2 pezeta eta 70 pezeta artean zegoen, tokiaren arabera. Inaugurazio eguneko kronika batean irakurri dugunez—“La Voz de Guipuzcoa” egunkaria—, Richard Strauss “Teatro Real de Madrid” en izana zen lehenik eta gero Bilbotik Martutenera propio etorria. Oso gorai patzen dute kronika horretan zuzendari austriarra. Hainbestera goraipatu, ezen esaten baitute Berlingo orkestra Filarmonikoa Ricardo Straussek berak zuzendua izateko sortua zela —jakina, orkestrak ordura arte izandako zuzendariak gutxietsi gabe—. Eta bere hitz batzuk ere eranstean dituzte kronikan:

“Durante mi infancia y mi juventud —son palabras suyas- me consagré exclusivamente a la escuela clásica. Mozart, Haydn, Beethoven y Schubert guiaron mis primeros pasos e inspiraron mis ensayos. Y estoy convencido de que no hay mejor base para una educación musical ... En resumen —concluye Strauss;- si fuese necesario concretar, yo diría que los músicos modernos que han ejercido mayor influencia en mí, aun independientemente de mi voluntad,, han sido Liszt, Wagner y Berlioz; Liszt sobre todo”.

1908ko maiatzaren 13ko “La Voz de Guipúzcoa” egunkarian azaldutako kronika berean, programa ere azaltzen da:

Primera parte

- 1º Overtura de "Tannhäuser". – Wagner.
2º Muerte y transfiguración". – R. Strauss

Segunda parte

- 3º Quinta sinfonía en Do menor. – Beethoven
a) Allegro con brío.
b) Andante con moto.
c) Allegro.

Tercera parte

- 4º Travesuras de "Till Eulenspiegel". - R. Strauss
5º Overtura "Los maestros cantores". – Wagner.


Kontzertu eguneko gertakariak horrela kontatzen digu EL PUEBLO VASCO egunkariak 1908ko maiatzaren 14ko alean:

"Ordu biak pasatxo zirenean hasi zen tranbien zerbitzu berezia. Auresanda zegoen bezala, 5 minuturo abiatu ziren Martutenerantz. Martxan jarri berri duten txalupen zerbitzuak ere arrakasta izan zuen. Autoz ere inguratu zen zenbait zaletu. Iritsitakoan, animazioa izugarria zen. Plazaren barrualdea nabarmen apainduta zegoen. Ikuslego berezia urduri zegoen emanaldi hasieraren zain... "

"La voz de Guipuzcoa"-n, berriz, inaugurazio eguneko biharamunean irakurritak, jakin dugu plaza guztiz bukatu gabe zegoela. Halere, barrualdea festarako bikain prestatu omen zegoen.

Hasieratik antzeman ziren plaza honen porrota iragartzen zuten sintomak. Inaugurazio ekitaldian, ikusleak egon baziren ere, jendetza ez zen espero bezain bestekoa izan, eta toki asko hutsik geratu ziren. Kronikaren arabera, tokia ez zen aproposa tamaina horretako kontzertuetarako. Geroxeago frogatuko zuten fundamentuzko zezenketak egiteko ere ez zela egokia, harea gunea txikia zelako.

Antolatzaileek, txikia zela ikusi arren, ez zuten atzera egin eta 4 egun berandua go beste kontzertu bat antolatu zuten. Kontzertua Donostiako Orfeoia eman zuen, Esnaola maixuak zuzendua. Bertan aritu ziren Pilar Mitxelena eta Ascensión Betoré andereñoak, 50 orkestra irakasle, eta 80 neska-mutil.



**Maiatzaren 17rako sarrera. Francisco Tuduri Esnal
“Zezenak dira (De Erreguesoro a Illumbe parando en el Chofre)”
Kutxa Fundazioa, 2000 (40-47)**

Sarrerak dezente merkatu ziren. Palkokoak 20 pezeta balio zuen, eta paseokoak, merkeenak, 0'50 zentimo. Aulkiak, 2 pezeta. Beharbada horregatik jende gehiago izan zen inaugurazio egunean baino. Halere, merezi eta espero zena baino harrera eskasagoa izan zuen kontzertuak. Arratsaldeko 4'45ean hasi zen eta programa hau izan zen.

Primera parte

Prólogo de la ópera “Mefistófeles

- a) Preludio y coro
- b) Scherzo instrumental y aparición de Mefistófeles
(Por el orfeonista Sr.Irazusta)
- c) Intermedio dramático
- d) Scherzo vocal
- e) Samoldia final A. Borto

Segunda parte

- 1º El adagio de la noche Beethoven Rillé
- 2º Fantasía Vascongada Arin (coro de hombres á voces solas)
- 3º Los maestros cantores, fragmentos Wagner
 - a) Coro de feligreses
 - b) Coronación Haun Sachs

Tercera parte

1º El destino Max.Brunch (Leyenda escandinava)

por el orfeonista Sr. Cirilo y doble cuarteto vocal

2º Nos qui summus Roland Lassus (coro mixto á voces solas)

3º Galia Lamentación Gounod por la Srta. Betoré y coro general

FINAL

Viva Aragón, jota Retan Por el orfeón "

("La Voz de Guipúzcoa", 1908ko maiatzaren 15ean, ostirala)

Kronika berean irakur daiteke sarrerak salgai egongo zirela zezen plaza berriko kioskoan, Boulevardeko kioskoan eta "café de Guipuzcoa"n (Bilbao enparantzan zegoena):

- Larunbatean, 11etatik 13etara eta 4etatik 8etara.

- Igandean, 11tatik 13tara eta 14:30tatik aurrera.

Enkarguz ere har zitezkeen sarrerak Donostia-Hernani trenaren bulegoan, Prim kaleko 14. zenbakian.

Baina kontzertuaren egun bereko beste kronika batek dionez, Mefistófeles Operaren prologoa debekatu egin zuten eta programa-aldaketa egin beharra izan zuten. Horrela agertzen da "La voz de Guipúzcoa" eta "El correo de Guipúzcoa" egunkarietako kroniketan, 1908ko maiatzaren 17an, igandea. Agindutakoaren ordeztu, hauxe eman behar izan zuten:

Primera parte

1º El adagio de la noche Beethoven Rillé

2º Fantasía Vascongada Arin (coro de hombres á voces solas)

3º Los maestros cantores, fragmentos Wagner

a. Coro de feligreses

b. Coronación Haun Sachs

Segunda parte

1º El destino Max.Brunch (Leyenda escandinava) por el orfeonista Sr. Cirilo y doble cuarteto vocal

2º Nos qui summus Roland Lassus (coro mixto á voces solas)

3º Galia Lamentación Gounod por la Srta. Betoré, coro y orquesta.

Tercera parte

1º Tannhäuser, marcha Wagner por la orquesta

2º Canto del ruiseñor Gluk por el orfeón

3º Nere andrea Santesteban por el orfeón

4º Viva Aragón, jota Retana Por el orfeón “

Lehenik, kultur emankizuna izan zen, gero zezenketak.

1908ko ekainaren 7an izan zen lehena: nobillada bat. Manuel Santos-en 4 zezenko toreatu zituzten. Bi izan ziren toreatzaileak: Basilio Barajas madrildarra, burzikari moduan aurkeztua, eta Torquito bizkaitarra, 3 zezenkorekin aritu zena. Emankizun horrek Martuteneko emankizunen ezaugarri izango zena ezarri zuen: istiluak. Hurrengo igandean kartel berdina zen, baina burzikaririk gabe eta zezenko bat gutxiagorekin; oraingoan ere Manuel Santos-enak ziren zezenkoak.

Ikusle gutxi egon zenez nobillada horietan, enpresak beste motatako ekitaldiak antolatu zituen jendea erakarri eta galerak txikiagoak izan zitezten. Hala, “mojigangas y becerradas” egiten hasi ziren. Mojigangas izenekoak zezenketa-komikoak ziren.



Una de las escenas, realizando un paso por el embudo. (La suerte de Don Francisco, un resadé con gran coraje.)

Bazkide bat plazan. Francisco Tuduri Esnal. “Zezenak dira (De Erreguesoro a Illumbe parando en el Chofre)” Kutxa Fundazioa, 2000 (40-47)

Logikoa denez, ekitaldiak, zenbat eta apalagoa izan, orduan eta interes gutxiago pizten zuen. Horren ondorioz, geroz eta ikusle gutxiago joaten zen emanaldietara, eta defizita geroz eta handiagoa zen.

Lehenengo urtean 2 zezenketa-komiko eta 2 ongintzazko zezenketa egin ziren. Zezenketa-komikoak izan arren, ohiko zezenketa serioa ere bazuten. Horietariko batean, On Kixote eta Sancho Panza aritu ziren alderdi komikoan. Alderdi serioan, berriaz, Ocejito nobilleroa. Ongintzazko zezenketatan toreatzaile afizionatuek hartu zuten parte, horien artean Lizarralde eta Salvador San Josék. Lizarralde Chofreko plazan maiz aritu izanagatik zen oso ezaguna.

Hurrengo urteetan, ikusleengan ikusmina pizteko emankizunen bila jarraitu zuen Martuteneko enpresak eta, ahaleginen ondoren, 1909an, frantses-espainiar zaldi konpainia baten erakustaldia eta greko-erromatar borroka bat ikusi ahal izan ziren.

Zezen plaza kudeatzeko, 1910ean enpresa txiki bat egin zen haren kargu eta antzeko bi ekitaldi antolatutako zituen, izugarritzko iskanbilatan bukatu zutenak. Lehenengo ekitaldian, martxoaren 13an, ikusleak haserretu egin ziren bi torero komikoekin – El Rosdito y El pintao”- eta antolatzaileekin, zeren plazaratutako behi batzuk, mehe eta zaharrak, aurkeztezinak baitziren. Orduan, arestian aipatutako iskanbilarik sonatuena gertatu zen. Plazako kristal guztiak hautsi zituzten. Bigarren ekitaldian, berriaz, aurrez esandako gatazka gertatu zen, Gobernu Zibileraino joan ziren manifestazioan sarreraren dirua itzultzeko eskatzera.


Hurrengo urteko apirillean dantzaldi baten iragarpena ikusi dugu. Gaita-jole banda batek girotuko du dantzaldia. Sarrera orokorrak 0,25 zentimo balio zuen, eta emakumeak dohain zuten sarrera.

Maiatzean eta ekainean pikadorerik gabeko bi nobillada egin ziren. Cándido Díaz-en Nafarroako ganadua zen. Bertan aritutakoak: Navarrito, El Riojanito, Coche-rito II eta Gitanillo izan ziren Tendiduak 1,50 balio zuen eta sarrera orokorrak 0,75 zentimo. Animazio lanetan “La Unión” musika banda aritu zen. Nobillada horiek ez ziren arrakastatsu izan eta, plaza, Francisco Tuduri Esnalek dionez (“Zezenak dira” liburuko 47. orrialdea), hiru urtez-edo egon zen itxita.

1915ean enpresari berri batek hartu zuen zezen plaza ustiatzeko ardura eta nobilladentzako abonua bat antolatzeko abenturari ekin zion. Ekitaldiak ekainaren 3an, 6an, 27an eta uztailearen 18an eta 25ean izan ziren. Ekainaren 3an, 6an, 27an eta uztailearen 18an eta 25ean izan ziren zezenketak.

Kartelak honako hauek izan ziren:

Ekainaren 3a: Pikadoreekin. Sánchez Carreros-en 4 zezenko, Pastoret eta Mariano Merino- rentzat.



Korrída. Francisco Tuduri Esnal. "Zezenak dira (De Erreguesoro a Illumbe parando en el Chofre)" Kutxa Fundazioa, 2000 (40-47)

- Ekainaren 6a: Pikadorerik gabe. 2 zezenko Pastoret Chicorentzat eta "dos embolados para el público". Diru-bilketa egin zen ikusleen artean "Herrerín" banderilleroaren alde, aurreko zezenketan zauritua gertatu baitzen.
- Ekainaren 27a: Pikadoreekin. Bueno-ren 4 zezenko. Handiak eta indartsuak, Roderentzat eta Tuñón Bilbotarrantzat.
- Uztailaren 18a: Pikadoreekin. Carreros-ren 4 zezenko, Alvaradito de Córdoba Machaquito de Sevilla-rentzat.
- Uztailaren 25a: Pikadoreekin. Carreros-ren 4 zezenko, Tuñón eta Domingo Uriarte (Rebonzanito) bizkaitarrentzat.

Emaitza ekonomikoak, halere, ez ziren nahi eta espero bezala. Dirurik ez, baina nobilladak, behintzat, eskandalu eta istilurik gabe egin ziren. Oraingoan, berriz ere harearen txikitasuna zezenketa ordenatu batetarako eragozpena izan zen. Zezenketa horien ondoren ez zen beste ekitaldirik antolatu.

Baliteke enpresariak oso trebe edo iaioak ez izatea. Baliteke antolatutako ekintza eta jaialdiak egokiak, aproposak edo erakargarriak ez izatea. Baliteke harea-gunea txikia izatea. Baliteke. Baina, dirudienez, porrotaren benetako eragilea kartzela izan zen. Kartzela -edo kartzela eraikitzeko proiektua-. Jendeak ez baitzuen gogoko, non-bait, kartzela bere etxe ondoan izatea, edota dibertitzera ateratzen zirenean, gizarteak zigortutakoen etxe ondoan ibiltzea. Aipamen bat baino gehiago entzun izan dut honen inguruan eta kontuan izatekoa dela iruditzen zait. Horregatik gertatu ote zen porrota ezin jakin, baina garbi dago proiektuak hasieran piztu zuen itxaropena, azkenean, amets -edo amets gaizto- bihurtu eta hutsean geratu zela.



Grupo de socios de la «Asociación Gimnástica» que tomaron parte en la sesión que se celebró en Martutene el domingo 11/11/10.

REVISTA NOVEDADES. 4 de diciembre de 1910

Bazkideak. Francisco Tuduri Esnal. “Zezenak dira (De Erreguesoro a Illumbe parando en el Chofre)” Kutxa Fundazioa, 2000 (40-47)

Badakigu okerra okerragotzen denean ez dagoela zuzentzailerik zuzenduko due-nik. Eta hala gertatu zen Martuteneko plazarekin, herren jaio eta herren segitu zuen, harik eta desagertzeko ordua iritsi zitzaion arte. Hiru bosturteko baino ez zuen iraun. Berlingo Orkestra Filarmonikoak eman zuten haren jaiotzaren berri eta itxaropentsu jarri zuten abian. Baina okerretik okerrera egin zuen gero eta, azkenean, 1923an, he-rrioak jota, makinek eta mailuek suntsitu behar izan zuten. Haren lekuan etxeak erai-ki ziren eta haren irudia betiko geratu zen lurpean. Ez, hala ere, haren memoria.

3-. BIBLIOGRAFIA

* 1995 eta 1996ko Martuteneko festetako programak. Eva Mateok idatzitako arti-kuluak.

* ZEZENAK DIRA liburua.

Egilea: Francisco Tuduri Esnal.

Izenburua: Zezenak dira (De Erreguesoro a Illumbe parando en el Chofre)

Kutxa Fundazioa, 2000 (40-47)

- * Javier Sadak emandako hitzaldi baten transkripzioa.
- * Ahozko testigantza: Carmen Loinaz eta bere alaba, Mari Luz Arrieta.
- * Irene Fernandez-ek egindako lana.
- * Garaiko egunkarietako artikulua, Udal liburutegian mikrofilmaturatuta dituztenak.

4-. ARGAZKIAK

- * Kutxako Fototeka.
- * Jose M^a Sanchez bilduma (Altzako Casares kultur etxea).
- * Nik neuk ateratako argazkiak.

5-. ESKER ONAK

* Bereziki IRALE-ko Teles irakasleari, lan hau aurrera ateratzera animatzeagatik, emandako aholkuengatik, eta aholku horiek eman ahal izateko lan honi eskaintako arreta berezia eta denboragatik.

* Altzako Casares kultur- etxeko Juan Carlos-i, lana ilustratzeko oso baliagarriak izan zaizkidan liburu eta dokumentu grafikoak erabiltzen uzteagatik. Baita Antton Alfarori ere internet bidez laguntza eskatutakoan, modu atseginez erantzun eta laguntza eskaintzeagatik.

- * Carmen Loinaz eta bere alaba Mari Luz Arrietari bere ahozko testigantzagatik.
- * Eva Mateori, artikulua horiek idazteagatik.
- * Irene Fernández-i, nik baino lehen egindako lanagatik.
- * Loiolako kultur etxeko Jon Urbietari, zuen informazioaz baliatzen uzteagatik eta Altzako Casares kultur etxera bideratzeagatik.
- * Loiolako kultur etxeko eta Ester Zabalori, bere laguntzagatik lehenengo urratsak eman nituenean eta Donostiako Udal liburutegira bideratzeagatik garaiko egunkariak begiratzera.
- * Donostiako Udal liburutegiko ARANTXA ALBISU?ri bere laguntzagatik bibliografia bilatzerakoan eta, batez ere, mikrofilmaturatutako garaiko egunkarietan artikulua bilatzen nirekin batera arituagatik.
- * Kutxako Fototekako Teresa Ostolazari, internet bidez emandako informazioagatik, era atseginez gainera. Eta ondoren, zuzenean, argazkiak erakusteko eta funtzionamendua esplikatzekoagatik. Baita Nuria Monterori ere bere laguntzagatik.